

*Inaki Barrena Hinojal*

EHUKO IRAKASLEA

## Hazi eta biderkatu!

**H**onela ikasi genuen eskolan eta elizan. Eta horrelako leloa nagusitu eta zabaldu da mundu osoan. Eta galdera da, noiz arte hazi daiteke Amalur mugatu batean? Gizakiok hemezortzi urtetik aurrera normalean ez gara hazten eta ez omen gara konturatzen bizitzak aurrera jarraitzen duenik. Haztea dugu zorientasunaren gako printzipala, alabaina ez al da posible jadanik daukagunarekin, ondo banaturik, egoki bizi? Hor dago koska eta erronka.

Aspaldion Txina eta India planetaren etsai anti-ekologikoak bihurtu ditugu azkarregi hazten ari direlako. Orain Txinan okela ere jaten hasiak dira eta Indian motorren eta autoen bizioarekin kutsatu dira. Gero eta erregai gehiago behar dute eta petrolio garestiago saltzen dute. Asiako hazkundera arerioa bilakatu zaigu eta gure erantzun bakarra, antza, gu ere ahalik eta azkarren, ahalik eta gehien haztea da, ekonomiaren lasterketan irabazteko. Asia munduko fabrika berria da, baina oraindik pertsona askoz CO<sub>2</sub> gutxiago isurtzen dute gurekin alderaturik.

Asiarrak Bush eta bere G8ko lagunekin hasarretu berri dira 2050 urterako eurek ere negutegi eragineko gasa %50 jaitsiaraztea nahi dutelako. Kuriosoa benetan mendebaldeko gobernari boteretsuen logika. Euren erantzukizuna onartu ez, zientzialarien iritziaren aurka neurriak epe super-luzera era-



INIGO AZKONA

man eta etxerako lanak Txina eta Indiari jarri.

Gure artean ere, ekonomiaren mantso-tzeak alarmak piztu ditu. Adibidez Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundiek berriki iragarri dituzte ekonomiaren bizkortzerako planak. Bizkaian Guggenheim berria eraikitzeaz aparte, sei errepide proiektu berriak plazaratu dituzte, esanez: “Hobekuntzak jasotzeko prest gaude baina proiektu honen aurka ezin du inork kontra egin” (sic).

Ekialderago Gipuzkoa Aurrera plataforma asmatu dute. Aldundiak, MCC, Kutxa, Adegia eta Merkatal Ganbararekin batera AHT, Pasaia Superportua edo garraio plataforma logistiko berria martxan jartzeko elkarren arteko konpromisoa sinatu berri du. Hazkunde ekonomikoa porlan eta petrolioaren kontura garatu nahi dute berriro ere, eta ziur gaude ekologistez gain sindikatuek eta beste eragile sozialek jendea mobilizatzen deituko dutela.

Hauek al dira parte hartzeko sustatu beharreko eredu berriak? Noizko garraio publikoaren hobekuntza? Zergatik segi behar du diru publikoak finantzatzen hazkunderaren negozio pribatua?

Amalurra ez da gehiago haziko eta guk zeru, itsaso eta mendietatik mugak ukitu ditugu. Has gaitetzen pentsatzen des-hazkundera, hobeto bizi ahal izateko! ■

« Asiako hazkundera arerioa

bilakatu zaigu eta gure

erantzun bakarra, antza, gu

ere ahalik eta azkarren eta gehien

haztea da ekonomiaren

lasterketan irabazteko



TXANDAN

*Joseba Barandiaran*



Ongizate estatuaren seme alaba eta proletalgoaren iloba garenok, astakeria iritzi diogu 60 orduko lanaste bati. Hilabeteko opor ordainduak (bestela ez dira oporrak), gutxienez KPI adinako soldata igoerak, amatasun eta aitasun bajak... geronen eskubideen berri badugu, sindikatze maila apalarekin batera. Eta ez gara arrazistak, noski.

Patronala garenean hasten zaizkigu kontraesanak ziztatzen: zazprietatik zazprietaraino, eguneko hamabi orduko lanaldian umezain (edo edadetuzain) baten bila hasten garenean; Segurantzaren Sozialaren kotizazioak gure patrikatik atera behar duenean eta, finean, langile bat, gizaki

## Patronala garenean

baten lana, kostu bezala somatzen hasten garenean. Ia oharkabean, “ustiatu” izatetik “hustiatzaile” izatera pasatzen garenean, alegia. Gutxieneko soldata, gehienezko lanaldia, opor ordainduak, (zabor) kontratuak, greba eskubidea...

Getxon umezain eta etxekolanetan dabilzanen hamarretik zortzi, %80, ez dago Segurantzaren Sozialean izen emanda. Nago, beste euskal herrietan ere, portzentaia ez dela hortik oso aparte ibiliko. Izan ere, Neguri eta Barakaldo ez dira sekula elkarren hain urrutiko ere egon. Edo, bestela esanda, zezen zezenketazalerik ez dudala ezagutzen. Uda on. ■